



TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO

hitza



Ostirala
2009-05-29

VII.URTEA 1.714.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

WIM MERTENS MUSIKARIA

«Inspirazioa gertatzen ari denari biluzik egonez heltzen zait»

TOLOSA Musikaria lehen aldiz izango da eskualdean; Leidor aretoan eskainiko du kontzertua gaur, 20:30ean

EMANALDIA Ekainean kaleratuko duen 'The world tout court' diskoko abestiak eskainiko ditu, besteak beste



Leaburu-Txaramako ezker abertzaleak «apartheid egoera» salatu zuen herenegun eginiko agerraldian. REBEKA CALVO

«Udalak eginiko bazterketa» salatu dute

Eskualdeko triatletak hirugarren Euskadikoan

LUIS PANCORBO KAZETARI ETA ANTROPOLOGOA

«Herri indigenengandik asko ikasteko dugu giza balioetan»

TOLOSA Amalur jardunaldien baitan, 'Otros pueblos' hitzaldia emango du gaur Kultur Etxean s

anaitasuna
EKITALDI POLITIKOA
bihar 17:30

denok
IRUÑERA

aldaketa
POLITIKO ETA SOZIALAREN ALDE

bozkatu
www.iniciativainternacionalista.org

iniziatiba
INTERNAZIONALISTA

gaur • **DONOSTIA** Ekitaldia 21:00 Konstituzio enparantzan

- **GASTEIZ** Erdialdetik eskuorri banaketa + Manifestaldia 20:30 Andra Mari Zuritik
- **ELIZONDO** Ekitaldia 20:00 Herriko plazan • **ARRIGORRIAGA** Ekitaldia 20:00 Kultur Etxean
- **SODUPE** Ekitaldia 20:00 plazan • **USURBIL** Kafe-bideoa 22:00 Irazu kalean
- **LEZO** Propaganda banaketa 20:00 plazan • **IRUN** Kontzentrazioa 19:00 Zabaltza plazan
- **ERANDIO** Ekitaldia • **ABUSU** Afaría • **BAKIO** Afaría • **OLABEAGA** Afaría
- **SANTUTXU** Afaría • **DEUSTU** Afaría • **URIBARRI** Afaría • **MARKINA** Luntxa
- **IRALA** Afaría • **ABADIÑO** Afaría • **ZORROZA** Afaría • **LEZAMA** Parrillada

bihar • **IRUÑEA** Ekitaldia 17:30 Anaitasunan

- **OIARTZUN** Propaganda banaketa 18:30 plazan • **USANSOLO** Triki-poteoa goizean zehar
- **OTXARKOAGA** luntxa

etzi

- **DONOSTIA** Propaganda banaketa Alde Zaharran • **ATAUN** Mendi irteera 11:00 Zeharaiatik-San Martinera • **TUTERA** Ekialdia 13:00 San Jaime plazan • **LASARTE** Ekitaldia 12:00 Okendo plazan

SPOT ELEKTORALAK

ekainak 1 astelehena 9:00 ETB 1	ekainak 2 asteartea 10:30 ETB 2	ekainak 4 osteguna 10:30 ETB 2
---------------------------------------	---------------------------------------	--------------------------------------

Roberto Jauregiren omenezkoa, bihar

Hegats-igeriketa » Usabalgo igerilekuan VII. Txapelketa jokatuko dute 12 eta 15 urte bitarteko 170 igerilarik.

ERREDAKZIOA

Urtero bezala, maiatzaren 30ean larunbatean, Usabalgo kiroldegian Roberto Jauregiren omenezko Hegats Igeriketa Txapelketa ospatuko dute. Igarondo urpekoak taldeak antolatuta. Goizez eta arratsaldez izango da 10:30ean eta 16:30ean hasita.

Igerilariak infantil eta kadete mailakoak izango dira; hala, 12 eta 15 urte bitartekoek hartuko dute parte eta ur gaineko, ur azpiko eta eskafandrako probak igeri egingo dituzte.

170 bat bilduko dira bertan, Nafarroa, Valentzia, Kataluina, Balear uharteak, Aragoi eta Euskadikoak.

Igarondoko 27 igerilari Euskadiko selekzioarekin

Faborito bezala Valentziakoak eta nafarrak direla argitu dute antolatzaileek, baina Igarondoko neska-mutilak ere «oso ondo entrenatzen» ari dira eta «emaitza onak» espero dituzte.

Gainera, heldu den ekinean Iruñean jokatuko duten Espainiko Txapelketarako «entrenamendu oso ona izango da hau», taldetik azaldu dutenez, han edukiko dituzten aurkariak etxean izango baitituzte.

Bestalde, Euskadiko selekzioarekin parte hartuko duten tolosarrik 27 izango dira.

Iurre bertso paper lehiaketako sari banaketa, astelehenean

Bertsolaritza » Guztira 150 lan jaso ditu elkarteak; ekitaldia 18:30ean izango da, Tolosako udaletxeko batzar aretoan.

ERREDAKZIOA

Tolosako Iurre elkarteak datorren ekainaren 1ean, astelehenean, banatuko ditu Iurre bertso paper lehiaketako sariak. Sari banaketa 18:30ean hasiko da, Tolosako udaletxeko batzar aretoan.

Parte-hartzaile kopuruari dagokionez «arrakasta» handia izan duela zehaztu dute elkarteak. Guztira, 15 lan bildu dituzte, Samaniego eta Hirukide ikastetxeetako eta Laskorain ikastolako 5. eta 6. mailako ikasleek hartu dute parte. Gipuzkoako Bertsozale elkarte-

ren laguntzarekin antolatu zuen Iurre elkarteak lehiaketa, Udaleren laguntza ere izan dutelarik. Guztiei «eskerrak» eman nahiz izan dizkiete

Sari banaketan aurkezle lanak Bixente Gorostidik egingo ditu. Hain zuzen, bera da *Bertsolaritza eta ahozkotatasuna* proiektuaren arduraduna ikastetxe hauetan.

Sariak emateko eta irabazleari txapela jartzeko, berriz, Aitor Mendiluze izango da. Tartean, Iurre elkarte eta Tolosako Udaleko ordezkariak ere izango dira.

'Bihar oporretara goaz'

Parte-hartzaile guztiak gai berdina jorratu behar izan zuten, *Bihar oporretara goaz* gaia, hain zuzen ere. Batzuk banak ausartu ziren gaia jorratzen eta beste batzuk binak eta hiruak aurkeztu dituzte

euren lanak. Partaideek bi bertso edo lau koplak aurkeztu behar zituzten. Jaso dituzten lan guztiak hiru sari nagusi eta hiru aipamen berezi aukeratu dituzte.

Epaimahaia hezkuntza arautuan aritzen diren Gipuzkoako Bertsozale elkarko 8 irakasle osatu dute.

Lehen hiru sailkatuentzat, materialean gastatzeko baleak

Lehenengo sailkatuak, txapela eta materialean gastatzeko 150 euroko balea emango diote. Bigarrenari oroigarria eta materialean gastatzeko 100 euroko balea. Eta hirugarrenentzat oroigarria eta materialean gastatzeko 75 euroko balea izango dira. Honekin batera, hiru aipamen egingo dituzte.

Elkartetik «zorionak» eman nahi dizkiete guztiei.

Z Zurea da hitza



Atal honetan zuen kexak, iradokizunak, eskertzak... argitaratzen ditugu ostiralero. Horiek guri helarazteko hainbat bide dituzte: Interneten, 'www.tolosaldeko-hitza.info' webguneko 'Zurea da hitza' atalean; e-mailez, 'tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info' helbidean eta 943 655695 zenbakian.

Asuncion ospitaleko parkina izugarrikoa da

Aste honetan Asuncionera joatea tokatu zait, mediku proba batzuk egitera. Lehenengo aldia zen, parkin berria egin dutenetik. Kotxea parkinean sartu nuen. Ohikoa den bezala, asuntua luzatu egin zen, atzerapenak zirela eta, eta azkenean ordu batzuk egin nituen ospitalean. Zein da nire sorpresa ordaintzera joan eta hiru euro pasatxo kobratu didatenean. Lotsagarria iruditu zitzaidan hainbeste ordaindu behar izatea, benetan! Harea joatea ez duzu hautatzen, egin beharreko zerbait da eta lapurreta bat iruditzen zait horretaz aprobetxatzea. Kontxako parkina baino garestiagoa da ia... Eta gainera ez dute batera txukun utzi kanpoaldeko rotonda hori...

Olatz.

Hau ezin da onartu, ingurugiroa guztiona da, errespetatu

Oraindik ere berldurtuta nago lehenengo ikusi nuenarekin, eta txoko honetan idaztera behartuta ikusi dut nere burua.

Gauza da Tolosan, errepidearen ondoan, espaloiean oinez nindoan, kotxea bat pasa zela, eta leihoa jeitsi eta zenizeroa hustu zuela normaltasun osoz, egunero egingo balu bezala. Errepidea zigarrak beterik utzi, eta aurrera jarraitu zuen.

Berari zerbait esateko gogoz geratu nintzen, izan ere, hau ezin da onartu inondik inora.

Mesedez, horrelako zerbait ikusten duzuenen ez isilik geratu, guztion lana da gurea dena zainetzea.

Ane.



Ikasleak, Gaztelura eta Santiagomendira eginiako irteeretan. HITZA

Gaztelura eta Santiagomendira irteerak

Iragan astean, Villabona-Zizurkilgo Jesusen Bihotza ikastolako HH3-4 eta 5 urteko ikasleak Gaztelura joan ziren egun pasa autobusez. Eguraldi zoragarria egin zuen eta haurrek pozak txoratzten ibili ziren jolasen.

Bestalde, duela egun batzuk ikasleak Santiagomendin izan ziren. Bertan kokatua dagoen Sagardoetxea ere ezagutu zuten eta sagardoa nola egiten den ere ikusi ahal izan zuten. Eguraldiak ez zuen gehiegi lagundu baina ikasleak gustura ibili ziren egun guztian zehar.

Jesusen Bihotza ikastola.

K Kirol jarduerak

Bihar, larunbata

Eskubaloia

■ Usabalgo goiko kantxan, 12:00etan, infantilak: Tolosa-Arrate.

Hegats igeriketa

■ Usabalgo kiroldegian, infantil eta kadete mailan 09:30etik 19:30era bitarte, Roberto Jauregiren omenezko VII. Hegats Igeriketa Txapelketa.

Pilota

■ Beotibar pilotalekuan, 16:45etik aurrera eskuz Ipar Kutxa Txapelketaren finala: Gonzalez-Laskorain: Olaizola I-Mendizabal II.

Areto futbola

■ Uzturpe (Santa Luzi) pilotalekuan Tolosa Kup 09ko partidak arratsaldean: 15:30ean, Ekaitz-Makkabi de Levantar; 16:20ean, De Patxis-Amo a sali campion; 17:10ean, Bonbororeea-Txorimaloak; 18:00etan, Harry pote-Sinsalus; 18:50ean, Celtic Power-Hobereña; 19:40ean, Ecuador-Bamantol. Epailan lanetan, Celtic Power (lehen hiru partidetan) eta De Patxis (Makkabi de Levantar, azken hiru partidetan).

Etzi, igandea

Futbola

■ Berazubiko futbol zelaian, 17:30ean Gorengoan mailan: Tolosa CF-Astigarrako.

Areto futbola

■ Uzturpe (Santa Luzi) pilotalekuan Tolosa Kup 09ko partidak arratsaldean: 15:30ean, San Juantan-Forty's; 16:20ean, URT-Elorri; doetxea ere ezagutu zuten eta sagardoa nola egiten den ere ikusi ahal izan zuten. Eguraldiak ez zuen gehiegi lagundu baina ikasleak gustura ibili ziren egun guztian zehar.

digitala
h
@

gaur • 18:00etan

INAKI IRAZABALBEITIA

Independentistak eta Ezkertiarrak koaliziozko Euskal Herriko zerrendaburua

HITZAren erredakzioan izango da zuzenean zuen galderak erantzuteko.

Bidali zure galdera!

Aurrez ere zuen galderak bidali ditzaitezue gure webgunean.

www.tolosaldeko-hitza.info webgunean



E Elkarrizketa

WIM MERTENS › Musikaria



HITZA

«Gertatzen ari denari biluzik egonez datorkit inspirazioa»

IMANOL GARCIA

Lehenbiziko kontzertua izango du gaurkoa Tolosan Wim Mertens musikari eta konpositoreak (Neerpelt, Flandria, 1953). Leidor aretoan izango da emanaldia, 20:30ean, eta berarekin batera ariko dira Tatiana Samouil (biolina), Bert Van Laethem (biolina), Tony Nys (biola), Karel Steyllaert (txeloa) eta Ruben Appermont (kontrabaxua). «Tolosa ez dut ezagutzen eta gogo handiz nago bertan kontzertua emateko», azaldu du Mertensek.

Zer pieza joko dituzue kontzertuan?

Aurreko urtearen amaieran argitaratutako *L'Heure du Loup* (Otsoaren ordua) diskoak, baita *Music and film* (Musika eta zinema) diskoarenak eta ekainean argitaratutako *The world tout court* (Mundua soilik) diskoarenak. Azken bi diskoak perkusioarekin eta bateriarekin sortutakoak dira. Lan asko egiten ari garenez instrumentu talde ezberdinen arteko transizioei buruz, haizezkoak, harizkoak, perkusiozkoak..., bi disko hortako piezen egokitzapena egin dut bihar nirekin ariko diren harizko boskotearentzako.

Entzunlegoak aurretik ezagutzen dituen piezak entzun nahi izaten ditu edo konposizio berriak?

Uste dut musikaren berezko ezagarrria dela jendeak entzun nahi izaten duela aurretik entzundako musika bera. Musikarientzat hori berezia izaten da. Musika berdina behin eta berriro jotzen dugu, baina aldi berean ekitaldi bat sortzen dugu, zerbait ezberdina izaten da, eta horren parte izaten da entzunlegoa ere.

Azken diskoaren izenburuan otsoa agertzen da. Zergatik?

Otsoarena oso garrantzitsua da, ezustea ematen duen pertsonaia delako. Txikitatik daukagu beraien berri, ipuinen bitartez, eta ezusteari lotuta agertzen dira. Bestalde, otsoa taldean aritzen da eta bere lurra defendatzen du. Berdina gertatzen da musikariekin ere. Bestalde, izenburuan ere denbora agertzen da, ordua, momentua. Hau ere garrantzitsua da. Beti gauder iraganera begira, zerbaiten zain, zerbait ona edo txarra. Esaterako, gaur [atzo] hegazkinean bakarrik etorri naiz, gero etorriko dira musikariak, bihar [gaur] beste bi etorriko dira, eta horrek kontzertua eman arte suspensea sortzen du.

Nondik hartzen duzu inspirazioa musika sortzeko?

Ez dut ulertzen inspirazioa zerbait misteriozkoa bezala. Orain argitaratutako den diskoaren izenburuarekin lotu dezaket, *Mundua soilik*, hau da, inspirazioa datorkit munduan egoteagatik, gertatzen ari denari biluzik egonez. Leku batean eta garai batean bizi gara eta horrek eragiten du gauza batzuk gertatzea eta beste batzuk ez. Inspirazioa kuriositate da.

Nola deskribatuko zenuke egiten duzun musika?

Nire musika bi lekuren artean dago: gehiagorik ez eta oraindik ez. Gehiago begiratzen diot praktikari teoriari baino. Praktika horretan daude eskuak, bihotza eta instrumentua jotzea. Jendea gustatzen zaio ezaguna zaizkion gauzak. Aukeratzeko joaten zara zer gustatzen zaizun. Gizakiok daukagun sentimendu bat da, baita animaliek ere. Beraz, aukeratu egin behar da zer den ona eta zer den txarra. Musikari dagokionez, ona denean interaktuatu egiten da entzunlegoarekin.

Musikan alde batetik metrika dago eta bestetik erritmoa. Metrikak gauza itxia suposatzen du. Erritmoan dago beti ezustekoa, gogo bizia, gauza itxiak ez direnak, maitasuna, aukera guztiak. Nire ustez, XXI. mendean metrika gutxiago egongo da eta erritmo gehiago. Pertsona batek jaiotzen denetik hiltzen den arte espresatu behar du zer sentitzen duen erritmo horren inguruan.

Zer uste duzu bilatzen dutela jarrizkoak zure musika entzuterakoan?

Musika bat konposatzerakoan ez dakizu zer gertatuko den. Bainaniretzat obra horren komertzializazioa ez da hain garrantzitsua. Niretzat ahal duen denbora gehien irauten behar du musika horrek gutxiengoan egoten. Horrela, etorkizunean, hemendik 20 urtetara edo, entzunlego zabalago batera iritsiko da. Gutxiengoan egotea esan nahi du oraindik garatu egin behar den hizkuntza bat dela. Abesti horiek garatu eta manifestatu egin behar dira sentitzen dituen jendearen bitartez.

Euskadiko Txapelketan hirugarren geratu dira eskualdeko triatletak

Triatloia › Gipuzkoako eta Euskadiko Txapelketa jokatu ziren asteburuan, Hondarribian; emaitza onak lortu dituzte Mahalakoek.

ERREDAKZIOA

Beste behin ere, emaitza oso onak lortu dituzte asteburu honetan Mahala Tolosaldea Triatloi Taldekoek. Joan den larunbatean jokatu zen Hondarribian Euskadiko taldekako triatloi Txapelketa. Baita, Gipuzkoako ere. Guztira 34 taldek hartu zuten parte norgehiagokan. Hauek irteera puntutik bi minutuero ateratzen joan ziren, erlojuaren aurkako modalitatean lehiatzen ziren. Denera, egin beharreko ibilbidea hau izan zen: 750 metro igerian, 18 kilometro bizikletan eta beste 5 kilometro korrika.

Uretako frogari zion beldurrik handien Mahala Triatloi Taldeak, baina horretan ere neguan sartutako orduak ez zirela alferrik geratu erakutsi zuten. Uretatik atera ostean, bizikletako eta korrikako ataletan punta-puntan ibili ziren eskualdekoak. Hortxe gauzatu zuten Mahala- Tolosaldeko Triatloi Taldeko A multzokoek euren arrakasta.

kastaren gakoak. Gipuzkoako Txapelketako bigarren postua eta Euskadiko hirugarrena lortu baitzituzten. Bestalde, taldekoen esanetan, «aurretik zein talde iritsi ziren ikusita, egundoko emaitza da zailtzarrik gabe».

Mahala triatloi taldeak ordea, aurturten duen taldea eta maila kontuan hartuta, 3 talde atera zituen lasterketa honetan, eta B eta C taldeak Euskadiko 9. eta 13. postuetan geratu ziren. Gipuzkoakoan berriz, 5 eta 7.etan sailkatzea lortu zuten.

Gipuzkoako Txapelketan bigarren postua erdietsi zuten eskualdekoek; 34 talde aritu ziren lehian

zuten. Emaitza onak beraz triatletek pasa den asteburuan lortutakoak.

Hurrengo jardunaldiak

Asteburu honetan Gipuzkoako hiriburuan jokatuko dute Onditzen omenezko nazioarteko triatloia. Hemen, distantziak handiagoak izango dira: 1.500 metro igerian, 40 kilometro bizikletan eta 10 kilometro korrika. Hemen ere emaitza oparoak ekartzeko asmoz lehiatuko dira eskualdekoak.

Laburrak

Presoen aldeko sinadura bilketa, gaur eta bihar

ASTEASU • Amnistiaren Aldeko Mugimenduak deitutako ekimenekin bat eginaz, euskal presoen aldeko sinadura bilketa egingo dute Asteasuko plazan. Gaur eta bihar izango da honetarako aukera. Gaur 19:00etatik 21:00etara egongo da jarrira mahaia, eta bihar 11:30etik 13:30era. Bestalde, hila-beteko azken ostirala denez, elkarretaratzea ere egingo dute gaur 20:30ean, presoen alde.

Rosalía Rojo eta Saioa gaur, Bonberenean

TOLOSA • Musika izango da protagonista asteburu honetan ere Bonberenean. Hala ere, jakitera eman dutenez zenbait aldaketa egon dira gaur eta biharko ekitaldietan. Hasteko, gaur, 22:30etik aurrera Rosalía Rojo eta Saioa bakarlaririk entzuteko aukera izango da. Bihar berriz, garai berean, Gora Japon eta Do (Joseba Irazokiren azken proiektua) taldeak izango dira eszenatoki gainean.

arantzazu
bila dabiltzan pertsonentzat - santutegia, kultura eta natura

ezagutu Arantzazu gaur
uste duzuna baino gehiago da

www.arantzazu.org

«Berak badaki ni nola nabilen eta irabazteko aukera ikusiko du; ni nire lana egitera noa»

JOSEBA OTAEGI | Aizkolaria

Zizurkil » Josu Aizpuru nuarbearren aurka jokatu du apustua Otaegik, etzi, Azpeitiko zezen plazan.

IMANOL GARCIA

Bigarren apustua izango du Joseba Otaegi aizkolaria (Zizurkil, 1983) etzi, igandean, 12:30ean Azpeitiko zezen plazan. Aurrean Josu Aizpuru nuarbearra izango du, aizkoraren munduan eskarmentu gutxikoa. 3.000 euro izango dituzte jokoa. 8 kanaerdiko (1,25 metroko zirkunferentzia) eta 4 oinbiko (1,67 metrokoa) ebaki behar dituzte, hau da, 45 minutu inguruko lana egin beharko dute. Sarrerak 30 euro balioko ditu.

Nolakoa da egin beharreko lana? Normalean apustueta zerbait gehiago egiten da. Apustu honetan Euskal Herriko Lehen Mailako Txapelketan egiten denaren baino zerbait gutxiago da.

Josu Aizpuru ez da oso ezaguna aizkoran.



HITZA

Ez gara inoiz aritu elkarrekin aizkoran.

Apustua zuzenean zuri bota zizun. Badakizu zergatik?

Ez dakit. Egian izan daiteke ni izan naizelako azkenetakoa apustu bat jokatzen. Rekondorekin jokatu nuen eta horregatik izango da. Niretzako sorpresa izan zen.

Eta aurrera egitea erabaki ze nuen.

Aurrena hitz egin nuen ingurukoekin, entrenatzailearekin eta baiezkoa eman genuen. Erreferentzia falta hori dugu. Ez dakigu non ibil daiteken bera.

Apustua egin eta gero ikusi duzu Aizpurua aizkoran?

Ez dut inoiz ikusi.

Eta baten batek zerbait esan dizu berataz?

Txapelketan ikusitakoak eta, gai-

nontzekoan ez du beste inork ikusi. Behin Hirugarren Mailako Txapelketan ateratzen eta gerotik ez du beste inork ikusi.

Aizpuruk bere alde izan dezake ez jakiteak nolako maila eman dezakeen. Zurea ezagunagoa da.

Ni zer mailatan ibili naitekeen ikusi xamarra dago. Ikustekoa dagoena da berak zer maila emango duen.

Eta horrek arduratzen zaitu?

Ni nire lana egitera joango naiz, hori garbi dago. Hasi eta bukatu ahal dudan konstanteena eta eritimo egokian, lan on bat egitera.

Apustuan eritimo aldatetak egiteko aukera izango da?

Txapelketetan lanak esplosiboak dira eta behin atzera gelditzen bazara, gero kostatu egiten da errekupekatzen. Baina lan mota honetan ezin da hasi itsu-itsuan. Martxa batean hasi behar da eta gero badago denbora eta lana eritimoa azkartzeko.

Aurreneko apustuan, Rekondoren aurka, nahiko erraz irabazi ze nuen. Apustu honek berez errazago dirudi.

Berak niri apusturako izendatze-ko, badaki nola nabilen eta irabazteko aukerarekin ikusiko du bere burua. Ez dago ezer errazik, ezta gutxiago ere. Nik garbi dudana da nire lana egin behar dudala, ahal dudan ondoena eta kitto. Ezin dut beste ezer egin.

Apustuak egun gutxiago egiten dira.

Lehen gehiago egiten ziren, baina orain, azkenaldian, badirudi pixka bat mugitzen ari dela.

Ikusmina sortu du igandekoak?

Ikusmina dago, batez ere Azpeiti aldean. Sarrerak ez ditugu hemen jarri salgai. Azpeiti alde horretan salta handia dagoela esaten dute behintzat. Hemendik ere badirudi jende pixka bat inguratuko dela.

Azpeitian jokatzean, bere alde jende gehiago izango du.

Niri berdin dit. Behin plazara ateratzerakoan bakoitza berera joaten da. Askotan besteari egindako animoek ere motibatzen zaituzte.

Denboraldiari begiratu, aurten Lehen Mailan zabilta.

Urte polita daukagu. Laster Gipuzkoako Bigarren Mailako Txapelketa izango du eta gero urrian izango da Lehen Mailako Euskal Herrikoa. Batez ere finaleko sei lehenengoetan sartuz gero, erakustaldi eta torneoen parte hartzeko aukera gehiago izaten dira. Saiatuko naiz, zaila izango bada ere, muturrartzen.

Lehenengo Senidetze Eguna ospatuko dute bihar

Zizurkil » Aiztondo bailararen eta Segundo Montes komunitatearen arteko Senidetze Eguna ospatuko dute bihar.

ERREDAKZIOA

Aiztondo Bailararen eta El Salvadorreko Segundo Montes Komunitatearen arteko lehenengo Senidetze Eguna antolatuko dute bihar, egun guztian zehar Zizurkil. Herri honetaz gain, bailarako beste hiru herri daude anaieratuta Se-

gundo Montesekin: Aduna, Asteasu eta Villabona.

Eguna ospatzearen helburua bikoitza da, ospakizunaren bultzatzaileek diotenez. Alde batetik herritarrei anaieratzea azaltzea eta herritar guztiek Segundo Montes Komunitatearen berri izan dezatela. Bestetik, finkatutako mikroproiektuen finantziario bidea lortzea. Anaieratzeak konpromisoa, jendearen arteko harremanak, esan nahi duela adierazi dute. Proiektuek arrakasta izan dezaten, bertako jendeak bere bezala ulertu behar dituela azaltzen dute.

» EGITARAUA

■ **12:00.** Segundo Montesetik otzritako ordezkariak ongietorria eta Mercedes Venturari omenaldia Pasus Plazan. Bertan Loatzo musikarekin eskolako haurren parte hartzearekin. Gero, Kantu Kalekoen emanaldia eta ondoren talo solidarioak.

■ **16:30.** Aduna, Asteasu, Villabona eta Zizurkilgo ikastetxeetako haurren arteko herri kirolak.

■ **21:00.** Bertso afaria Atxulondo jatetxean Andoni Egaña eta Amets Arzallusekin.

Izena emateko aukera Koadrila Eguneko otorduentzako

ERREDAKZIOA

Anoetako festen baitan ekainaren 6an Koadrilen Eguna izango dute. Bertan bazkaria eta afaria egingo dituzte eta horietarako izena emateko azken eguna gaur da. Itzuli taiberman daude zerrendak. Koadrilan Egunean, 09:00etan XII. Eskuzko Pilota Herri Txapelketako finalak izango dira; 11:00etan, batelak Errota poligonoan; 12:30ean, txupinazoa eta kalejira; 14:30ean, bazkaria frontoian; 17:00etan, koadrilen arteko jokoak; 19:00etan, Zozongo perkusio taldearekin kaljira; 21:00etan, afaria; 23:00etan Laket taldearekin erromeria.

Gaur aukeratuko dira finalera joango diren beste bi taldeak

ERREDAKZIOA

III. Poltsikoko Antzerki Lehiaketaren bigarren finalerdia izango da gaur Asvinenean. Lau parte-hartzaile izango dira bertan: Estocolmo taldea *Hasta que llego ella* obrarekin; Irube *Bat, bi eta hiru* antzezlanarekin; eta Maneras de sentir *Me cambio, me cambio, me cambio* obrarekin. 22:30ean hasiko da finalerdia.

Dagoeneko finalerako sailkatu diren *Tres tristes tristes* taldea eta *Teatraigo* taldea izan dira, lehenengo publikoak aukeratuta eta bigarren epaimahaia.



HITZAK 2 harpidedunentzat bina sarrera ditu

Maiatzak 30 • Larunbata
16:45ean
Tolosako Beotibarren



sarrerak eskuratzeko deitu
GAUR 17:00ak arte: 943-65 56 95



sarrerak

Uriarte - Galarza VI
Belloso - Iza
OLAIZOLA - MENDIZABAL II
GONZALEZ - LASKURAIN
Chafee - Otxandorena
Berasaluze IX - Lasa III

Iragarki laburrak

SALGAI

■ **Taxi lizentzia.** Tolosako taxi lizentzia saltzen dute. Informazio gehiago: 616 542 960.

■ **Lokala.** Iruran lokala salgai (120 m²). Zatikatu daiteke. Bi sarrera independente. N-tetik gertu. Oso aproposa hainbat erabileratarako. 943 36 26 16.

ALOKAIRUAN

■ **Apartamentua.** Jakan, bi logelako apartamentua alokatzen da abuzturako. Nahi izanez gero hababostaldirako ere alokatu daiteke. Guztiz osatua. Garajea eta igerrilekura begira. Urmeekin joateko aproposa. Interesatuak deitu: 649 20 89 84.



HITZA

«Giza balioetan asko dugu herri indigenengandik ikasteko»

LUIS PANCORBO • Kazetari eta antropologoa

Tolosa » Luis Pancorbo 'Otros pueblos' hitzaldia emango du, gaur, Amalur jardunaldien baitan, herri indigenen inguruan.

EKAITZ AGIRRE (BERRIA)

Laugarren urtez, natura, bidaia eta antropologia ardatz dituen Amalur jardunaldien azken eguna izango da gaur. Tolosako Ekinbide Etxearen eskutik, urtero munduko lurralde bat aukeratu eta ezagutarazten dute, eta aurten Amazoniako taupadak astintzen ari dira Tolosa. Hitzaldien artean *Otros pueblos* (*Beste herri batzuk*) emaldia eskainiko du, gaur, Luis Pancorbo (Burgos, Espainia, 1946), 20:00etan Kultur Etxean. Kazetari, antropologo, bidaiari eta esploratzaileak, Espainiako telebistako *Otros pueblos* dokumental saioaren 130 kapitulu ekoizti ditu, 1981. urtez geroztik, eta hogeitabiur idatzi ere bai. Amazoniako indigenak izango ditu hizpide.

'Otros pueblos' saioarekin munduko herri asko ezagutu dituz. Zeintzuk izango dira ostiralean ikusleari gerturatuko dizkiozun beste herriak?

Amazoniako indigenei buruz hitz egiteko eskatu zidaten, eta hain eremu zabaletik hiru aukeratu ditut: Peruko koga pakoriak -ibilian dabilzkanak deitzen diete, bizileku finkorik ez dute-, Ekuadorko huaronianki eta Brasil eta Venezuelako arteko yanomamiak.

Zergatik dira bereziak herri horiek?

Huaronianki arazo handiak dituzte, haien lurretatik ustiatzen ari diren petrolioa tarteko. 1987an, Alejandro Labaka Beizamako (Gipuzkoa) apaiza hil zuten, lantzak erabilita, petrolio ustiatzailea zelakoan. Hunkitu egin ninduen gerta-

erak, eta dokumental bat egin genuen gertaera harekin.

Yanomamien inguruan zer nabarmenduko zenuke?

Kulturarekiko duten lotura sendoa, batez ere. Hizkuntza ongi artikulatua dute, eta mitologia eta erlijio ezaugarri oso bereziak dituzte; noreshi sinesmena, adibidez. Pertsona bakoitzak pareko bizitza duen animalia bat duela sinesten dute, eta bien bizitzak paraleloak direla heriotzaraino. Hildakoa erre egiten dute, eta errautsak platanu purearekin nahasian jaten dituzte. Errautsak kontsumituta baliogabetzen da noreshia.

Globalizazioak zertan eragiten die?

Ekonomia, finantza eta kapitalismoaren krisian gaude, eta une aproposa da hausnarketarako. Basoak eta natur baliabideak bereizkuntzarik egin gabe ustiatzen jarraitu behar al dugu enpresa gutxi batzuk aberasten direnean eta gehiengoarentzat kaltegarria denean? Lehenetsunak eta beharrak finkatu beharko genituzke, aberastasuna gutxi batzuentzat delako eta natur hondamendiak guztioi eragiten digulako.

Galtzeko benetako arriskuan al daude herri horietako asko?

Urtero galtzen dira hizkuntzak, kulturak eta herriak. Munduan 6.000 hizkuntza daudela kalkulatzen da. Askok dirudite, baina, nire ustez, gutxi dira, eta babesik ez duten hizkuntzak etengabe galtzen ari dira. Hizkuntza bat galtzeak herri batek errealitate ikusi eta ulertzeko ikuspegia galtzea dakar, eta tximeleta gorria galtzeak baino kezka handiagoa eragin behar liguke horrek, azken hori ere kezka garria den arren.

Eredu zabal hartzen du Amazoni. Zer nabarmenduko zenuke?
Munduaren birika zela argudiatuta, zuhaitz asko ebaki eta erre dira,

masiboki, eta pixkanaka baso eremu zabalak desagerrarazi dira. Arrisku handia da hori, bertako herriarentzat, eta baita mundu osoarentzat ere. Zuhaitz mozketak ekar ditzakeen onurak txikiak dira egiten den kaltearekin alderatuta. Bertakoek jakin dute ingurunearekin orekan bizitzen, jan behar dutenean arrantzatzen dute, baina ez dute erreka dinamarekin kutsatzen; landareak ezagutzen dituzte, eta osasunerako nola erabili badakite, eta halako ezagutza handiak dituzte. Eta giza balioetan ere asko dugu haiengandik ikasteko;

Zuhaitz mozketak ekar ditzakeen onurak txikiak dira egiten den kaltearekin alderatuta

Lehenetsunak finkatu beharko genituzke, aberastasuna gutxi batzuentzat delako

gutxi dira, ez dute arroparik jantziko, baina ez dute gaixorik dagoena, gosea duena edota agurea abandonatuko.

Tribuak ezagutu eta haiekin beldak egin ondoren, zer sentitzen duzu etxera itzultzekoan?

Nostalgia. Ditutzen giza balioengatik eta haiekin partekatzen ditudan natur inguruneengatik, batez ere. Natura bizi, animalia ikusi, tribuak ezagutu eta haiekin bizi. Etxera itzultzean etengabe biziberritzen ditut bizipenok; buruan eta ariman gordeta dauzkat.

Mende erdiko ibilian, zer tribu eragin ditu zirrara gehien?

Amazonian, yanomamiek, baina mundu osoari erreparatuta, Kongoko pigmeoek. Herriarik batetik bestera aldatzen direnean, guztia eramaten dute bizkarrean.

Gutunak

Gatazkaren «biktimen» inguruko Udalaren mozioaren harira

Tolosako Ezker Abertzaleak, lehen eta behin, errespetu osoa adierazi nahi die gure herriak urte luzez, luzeegiz, pairatzen duen gatazkak eragindako ondorio lazgarriak jasan behar izan dituztenei eta haien senide eta lagunei. Ezin dugu izan, eta ez gara, haien sufrimenduarekiko sentigabeak, besteak beste, egunero azalean sufritzen ditugulako aipatu ondorioak.

Baina ezin dugu ontzat eman Udaletxeko politiko profesionalak onartu berri duten mozioan erakutsi duten hipokresia.

Ederki asko ezagutzen dugu zer nolako errespetua erakutsi duten herri honetako seme izanik gatazkaren ondorio latzenak jasan dituzten hainbat herritarrekiko edota haien senideekiko. Ederki erakutsi zuten kanposantuan Joxi eta Joxeani, 15 urteren ondoren, haien herrian lur eman nahi zietenekiko. Edota berriki herri honek oroitu nahi izan dituenen, herritarrak jipoituz eta atxilotuz.

Azken adibideak Mikel Lopetegi eta Txirrita herrikideen oroimeneko ekitaldietan izan ditugu. Kartzela politika kriminalak eta guardia zibilak eraildako tolosarrak oroitzeko, Urkizum eta Uzturren mendian egitekoak ziren ekitaldiak debekatu eta galarazten saiatu dira, indarra eta koakzioa erabiliz, eta beldurra sortuz.

Garbi erakusten dute, etengabe, bereiztatzen lehen eta bigarren mailako biktimak daudela. Aho txikiak gatazkaren «biktima guztiez» hitz egiten duten arren, alde batekoak ezkatatu eta haiekiko oroimena eta errespetua zigortzen

dute, gupidagabe. Ezin ditugu onartu 40 urte luzez herri honetako politika genozida gauzatu zuten haien oinordekoen demokrazia lekzioak, edota euskal herritarrek erailtzeko GAL erakundea sortu eta zuzendu zutenen itxuragabekeria. Frankismoa salatzen ez dutenek edota Estatu krimenak zigortu ez, baizik estali eta sarritzen dituztenak «bakarmenaz» eta «adiskidetzeaz» hitz egitea gero...

Izan ere, Ezker Abertzaleak ez du beste inork gatazka honen ondorioak sufritu behar izaterik nahi. Horretarako lanean dihardugu egunero egunero.

Baina horretarako biderik eraginkorrena, bakarra ez bada, gatazka bera gainditzea da. Euskal Herria nazioa dela aitortu eta bere etorkizuna libreko eta demokratikoki erabakitzeak aukera eskainiko duen benetako marko demokratikoa eraikitzea.

Horregatik, herri honen hitza bahitzen dutenengandik, erakunde antidemokratikoak kudeatzen eta apartheid politikoa inposatu dutenengandik, sasi demokratengandik, inolako etika ikastarorik jasotzea nahiko sinesgaitza uertatzen zaigu.

Gatazka guztietan, mundu zaballean, norbere «biktimal» omentzeko eskubidea errespetatzea gizatuzunean adierazle izan da. Ez da Ezker Abertzalea eskubide hori zaputzen saiatzen dena. Horregatik, maiatzaren 29an Tolosako Ezker Abertzaleak ere gatazkaren ondorioak pairatu dituztenak omenduko ditu. Besteekiko errespetuz, baina bere erara. Ea bihar-munean guztioak gauza bera esan gerozaken.

Hektor Espin. Tolosako Ezker Abertzaleko zinegotzien izenean.


Laburrak

Euskal presoan aldeko elkarretaratzea, gaur

ORENDAIN • Etxeraten deialdiari erantzunez, Orendainen ere euskal presoan aldeko elkarretaratzea egingo dute gaur. 21:00etan bilduko dira herriko plazan.

Webgune berriari buruzko bideo grabaketa, gaur

TOLOSA • Gazte Topagunearen www.zazpitantriangulon.com webgunea promozionatzeko bideo grabaketa egingo dute gaur Triangulon 18:00etatik aurrera.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Ezker abertzaleak Udalaren «bazterketa» salatu du

Leaburu-Txarama » Udal Hauteskundeetatik bi urte pasa direnean denbora honetan guztian egindako lanaren berri ere eman du.

ERREDAKZIOA

Leaburu-Txaramako ezker abertzaleak azken Udal Hauteskunde-etako bi urteak bete direla eta herriko Udalean jasaten duten «apartheida» salatu du beste behin ere. «Bi urte pasa dira Leaburu-Txaramako Udaletxea bahitu zutenetik, hau da, herriaren apartheida ekarri eta demokratizazio zeron bitartean hasi ginenetik», argitu zuen.

Ezker abertzaleak orain bi urte herriaren bozka eman zuten 253 lagunetik 128 pertsonak EAE-ANVren aldeko bozka eman zutela argitu zuten lehenik eta behin. Bide Berriak plataformak, berriz, 118 jaso zituen. «Datu hauen arabera EAE-ANVk lau zinegotzi eskuratu zituen eta Bide Berriak hiru. Baina Espainiar legeak EAE-ANV indargatu zuen eta Bide Berriak hautetsiak hontaz baliatuz lehen hiru eserlekuak bahitu zituzten. Ondorioz herriaren hitza alde batera geratu zen», esan zuen.

Horiek horrela ezker abertzaleak Bide Berriaren programa aztertu eta beren lanaren berri eman zuten agerraldian. Ezker abertzaleak

Bide Berriaren jarrera ez dela bereik hauteskundeetan agindu bezain «garbia, gardena eta arrazoi-tua» esan zuen. Era berean, herritarrek informazio «falta» dutela eta «baztertuak sentitzen» direla ere argitu zuten. «Herriaren erabakiak ez direla kontutan hartzen pentsatzen dugu, Udaletxearen osaketan dago adibiderik garbiena. Diru laguntzak ere faltan botatzen ditugu, aurrera eramaten diren proiektuetan batez ere», argitu zuten.

«Aurreko urteko San Pedro jaia antolatzeke herritarrok ez genuen gonbidapenik jaso eta Txaramako jaia antolatzeke oztopoak soilik jaso» dituztela ere argitu zuten. «Aurtengoa ere ate joka dabilta ea gonbidapena iristen den», gaineratu zuten.

Larresoroko Ote Loreko «lagunen» inguruan hauek urtero herri-ira joaten direla esan zuen ezker abertzaleak, baina «Udala kontu honekin ahaztuta dagoela dirudi, bestela non daude adiskidetasun honi buruzko argazki eta koadroak?», galdetu zuten.

Bi urte hauetako lanak

Bestalde, Leaburu-Txaramako ezker abertzaleak azken bi urteetan herriaren egin diren hainbat lanen inguruko iritzia ere plazaratu zuten.

Denbora honetan herriari bi markesina berri jarri dituzte. «Ezker abertzalea Udaletxetik atera



«Bi urteetako apartheida» salatzeke elkarretaratzea egin zuten. R. CALVO

baino lehen onartua geratu zen autobus geltoki bat jartzeko proiektua, are gehiago diputazioak hau aurrera eramateko dirua emana zuen». Beren proposamena markesinak orduan zeuden geltokien itxura mantentzea zen, baina Bide Berriak «gainontzekoen oso desberdinak» direnak jarri dituztela salatu zuten. «Autobusak toki ezberdinetan egiten dute geldialdia, markesinak orain jarri diren tokietan funtzionalak al dira?», galdetu zuten.

«Gu hitz egiteko, lanerako eta Udaletxean gure lekuak hartzeke prest gaude»

Kilikoitiek Baratzondora doan saneamenduko obra ere oraindik ere bukatu gabe dagoela salatu zuten: «Orain dela zortzi hilabete hasi ziren auzolanean eta bereaien ezgaitasunagatik bukatu gabe utzi zuten. Entzun dugunez, espainiar Gobernuaren eskutik etorri den diru laguntzarekin enpresa pribatu bat kontratatzeke asmotan dabilta». Ezker abertzaleak auzolanaren aldeko apustua egin duela beti argitu zuen eta beraz, lan hau egiteke ere «herritarrei gonbita»

zabaldutako ez izana salatu zuen. Txaramako espaloian eta bide goriaren inguruan ere hitz egin zuten: «Ezker abertzaleak orain 12 urte proposatutako proiektua bukatu du Foru Aldundiak».

Hutsune batzuk ere atzeman dituzte hala ere, «Atari-eder etxearen ataria babesik gabe» geratu da eta. «Bestalde, Txaramako espaloian erreka ondoan, lurra erori zen, bi urte pasa dira hau konpondu gabe, honek dakarren arriskua erekin», gaineratu zuten.

Era berean, uraren aferaren inguruan Txaraman Udaletxeak behin eta berriz ura ez edatearen gomendioa zabaldutako gogoratu zuten eta zentzu honetan, ezker abertzalearen proposamena Leaburuko Txaramara jaisteaz izan dela argitu zuten, honetarako «proiektu bat gauzatzuta» zegoelarik. «Udaletxeak emandako aurrekontuetan 18.000 euroko obra gauzatu dela ikusi dugu, ez dakiguna da non eta zertarako egindako enobra hori», salatu zuten.

Bide Berriaren programan ere *Langabezia dauzuden herritarreilagundua lan munduan berriz txertatzeko* zioen leloa ere bazutela esan zuen ezker abertzaleak, baina «aspaldian herria nahiko utzita somatzen dugu, gauza askoren falta, mantenimenduko hainbat lan bu-

rutzeko...». Txaramako Kultur Etxearen inguruan «erabiltzeko moduan dagoela» uste dutela esan zuten, baina «erabilera falta» zaio. «Erabilera zaila izango du herritarrei giltza emateko orduan traba ugari jartzen badira».

Bukatzeko gasaren inguruan orain dela bi urte ezker abertzaleak taldeko kideek honi buruzko proiektua prest utzi zuela argitu zuten, baina «Udalak oraindik ez du» ezer egin.

Honekin guztiarekin batera liburutegiko langilea behin eta berriz aldatu eta lanpostua ez dutela herritarren artean zabaltzen salatu zuten eta gas naturala pasatuta ondoren herriko bideak puskatuta geratu direla ere salatu zuten.

Arlo politikoa

Zailtasunak zailtasun Leaburu-Txaramako hautetsi independenteak bi urte hauetan lanean aritu direla argitu nahi izan zuten eta honen harira denbora honetan Udaletxean moztio eta eskaera ugari ere sartu dituztela argitu zuten, tartean *Nazio bat, Selektio bat* edo EAE-ANVrekin zerikusia duen moztioak edota UEMak Oskidetzan langile euskaldunak aritzeko egindako moztioa. Udaletxeak baztertu egin zuten «herriko medikua euskalduna» delako. «Moztioak ez dira mintzatu eta gure eskaerei ez diote kasurik egin», gaineratu zuten.

Honekin batera, Amnistiaren Aldeko Mugimendua abiarazita kontu sinadura bilketaren inguruan, herritar talde bat etxer eze aritu dela gogoratu eta 140 sinadura jaso dituztela argitu zuten: «Benetan, mila esker, AAMarekin bat egin duzun guztiok».

Amaitzeko ekainaren 7an izango diren Europako Legebiltzarreko Hauteskundeak gogora ekarri eta Iniziatiba Internazionalistaren aldeko bozka eskatu zuten.

Bi orduko lanuzteak aste honetan Artecan

Villabona » Artecako langileak bi orduko lanuzteak egin ari dira aste honetan enpresak kaleratzeak ez burutzeko.

ERREDAKZIOA

Eskualdeko hainbat enpresetan bezala Villabonako Arteca Caucho Metaleko zuzendaritzak ere lan erregulazio txostena aurkeztu du Eusko Jaurlaritzako Lan Delegaritzan. Bere asmoa 11 pertsona kaleratzea da eta hori dela eta, aste honetan zehar bi orduko lanuzteak egin ari dira langileak.

Zehazki enpresak bi txosten aurkeztu zituen apirilaren 14an; langileak kaleratzeko bata eta lan etenaldia bultzatzeko bestea. En-



Asteazkenean langileek egindako bi orduko lanuzteen irudia. HITZA

presa-batzordeak -LABeko bost ordezkari eta ELAko lau osatzen dutena- negoziatzeko baldintza bakarra jarri zion zuzendaritzari orduan, kaleratzeen espedienteak baztertzera, alegia. Izan ere, batzordeak ez zuen onartu enpresak 20 langile kaleratzeko zuen as-

moa. Apirilaren 29an kendu zuen zuzendaritzak kaleratzeen espedienteak, nahiz eta etenaldikoak aurrera jarraitu zuen. Negoziatzeko hilabeteko epea hasi zen orduan, baina bukatzerakoan adostasunik ez zuten lortu eta hortaz, bi aldeek hala eskatuta astebeteko lutzapena

eman zioten kontsulta epeari, hila-ren 20ra arte, hain zuzen ere. Egun horretan, hala ere, ez zuten adostasunik lortu.

Era berean, enpresa batzordeak enpresaren datuak lortzeko izugarriko zailtasunak izan ditu eta 2007ko irabazi guztiak 2008an akzio-dunen artean banatu zituztela ere jakin ahal izan du. 2008ko irabaziekin gauza bera egingo duten ala ez jakin ahal izateko datuak kontsulta epea bukatu ondoren lortu dituztela ere salatu dute, baina oraindik ere enpresak ez omen daki zer egingo dute. Batzordeak oso argi izan du beti akordioa iristeko baldintza nagusia kalera-tertzetik ez egotea dela.

Negoziatzeko aurrera joan ahala, hala ere, enpresak 11 lagun kanporatzeko asmoa argi eta garbi

azaldu izan du eta horretarako, gainera, ez du lan erregulazio txostenik aurkeztu behar, langileen %10a baino gutxiago kaleratzen denean banakako kaleratzeak egin daitezke eta legearen babespean. Langileen batzarrak zuzendaritzaren asmoei aurre egiteko eta negoziaketak enpresa batzordeak eskatutako terminoetan bultzatzeko mobilizazio desberdinak egitea adostu zuten, tartean 2 orduko lanuzteak.

Honekin batera, espedientearen aurkako informea aurkeztu du Lan Delegaritzan eta aipatu delegaritzaren ebazpenaren zain daude orain. Izan ere, orain arte enpresa batzordeak zuzendaritzaren negoziatzeen saiatu direla zuten, baina, aipatu moduan, jada negoziaketak ere «puskatu» dira.



Mendibil mendi taldeak Mugarrien Itzuliaren bigarren zatia antolatu zuten iragan larunbatean. 22 lagun elkartu ziren mendiri irteeran. HITZA

Kultur Astearekin bat Mendibil mendi taldea eta Leitzako Gazte Asanblada

Leitza » Atekabeltz Gaztetxean Eki Uharteren oleo erakusketa zabaldu dute Gazte Asanbladako kideek.

ASIER IMAZ

Kultur taldearekin batera herriko antolakuntza desberdinek hartzen dute parte Leitzako XXXI. Kultur Astearen. Horiaren artean Mendibil mendi taldea eta Gazte Asanblada aurkitzen dira.

Mugarrietatik eskaladara

Leitzako mendi taldeak iragan larunbatean Mugarrien Itzuliaren bigarren zatia antolatu zuen. Eki-menaren bultzatzaileak gustura gelditu ziren irteerarekin: «Mugarrien 2. zatia oso eguraldi onaren laguntzaz osatu genuen, garbia eta ibiltzeko aproposa. 1050 metroko desnibela igo behar izan genuen eta nahiz eta momentu batean atzera egin behar izan, bidea amaitu egiten zelako eta aldapa gogor bati zuzen ekin behar geniolako, irteerara joan ginen 22 lagunek gustura ibili eta amaitu genuen ibilbidea. Ondoren erdiek, bapo bazkaldu genuen Musun-zahar jate txean, siestara joan aurretiko».

Kirola praktikatzeko jarraituko

du Mendibil taldeak Kultur Astearen. Izan ere, Eskolako 4., 5. eta 6. mailako ikasleekin eskalada saioa egingo dute bihar 09:30ean irten da, «trenbideko paretaren batean». Arratsaldean berriz, mendiko eskiaren inguruko DVD emanaldia antolatu dute Zinean, 19:00etan.

Gaztetxean oleo erakusketa

Leitzako Gazte Asanbladak Gazte Eune ospatu zuen iragan asteburuan. Horretaz gain, Atekabeltz Gaztetxean Eki Uharteren oleo erakusketa zabaldu du herriko Kultur Astearekin bateginaz.

Erakusketaatzotz jarri zuten mar txan eta gaur itxiko dute. Azken

egun honetan Atekabeltz Gaztetxera gerturatu nahi duenak ondorengo ordutegian joan beharko du: 17:00etatik 20:00etara.

» EGITARAUA

Maiatzak 29, gaur

■ **20:00etan.** Torrean Zirika Zirkus taldeko Pantxika Lamurren antzerki emanaldia: *Nik egin beharko & ko.*

■ **00:00etan.** Torrean Heavy kontzertua: Kantaflor taldea zuzenean.

Maiatzak 30, bihar

■ **09:30ean.** Plazatik oinez abiatu eta eskalada saioa trenbidean, Kandeletxe paretuan.

■ **11:00etatik 13:00etara.** Igerilekuan graffiti tailerra 12-15 urte bitartekoei zuzendua: *Ernaiozu igerilekuari sensualitate punttu bat II.*

■ **19:00etan.** Zinemaren Fidel Mendidiaren eta Ian Baquerinen ikuskin zuna: *Mendiko Eskia Kaukason.*

■ **20:30ean.** Plazan folk kontzertua: Keltiar Aldea zuzenean.

Maiatzak 31, etzi

■ **11:00etatik 20:00etara.** Plazan XXXI. Artisau Azoka.

■ **20:00etan.** Plazan dantzaldia Garraxi taldearekin.



Eki Uharteren oleoak ikusgai gaur Atekabeltz Gaztetxean. ASIER IMAZ

Jaunarena anaiek lehen puntua eman diote Leitzari Herri Artekoan

Pilota » Nafar Jokoak, Lizarrako eta Elgetako Txapelketa, Espainiako Federakuntza Torneoa...

A. IMAZ

Nafarroako Herri Arteko Txapelketaren bigarren itzulia jokoan da. Leitzak Uharteren aurka jokatzeko jardunaldi honetan eta jadanik lehen partida irabazi dute leitzarrek. Jubeniletan, Jon Jaunarenak eta Xabier Jaunarenak 22-6 irabazi dute euren lehia. Beste hiru partidak gaur jokatuko dira Amazabal pilotalekuan 19:00etatik aurrera.

Alebinetan Jon Lezea-Andere Eskudero ariko dira etxekoan aldetik, infantiletan Anartz Olanok Mikel Hernandezoren eta seniorretan Inigo Zubillaga-Mikel Iriarte.

Jaunarenaren hirugarrena

Asteburu honetan, Nafar Jokoetako partidak etxetik urrun jokatuko dituzte Aurreerako pilotariekin.

Lizarrako Txapelketan Garciaarena-Zubiriak bihar jokatuko dute, 16:00etan hasiko den pilota jaialdian. Olanok-Tolosak etzi jokatuko dute 10:00etatik aurrera.

Elgetako Txapelketan Xabier Jaunarenak jokatuko du etzi 11:00etan hasiko den jaialdian. Leitzarrak Arrasaten jokatuko du eta bere partida hirugarrena izango da.

Astean hiru norgehiagoka edukiko dituena Jon Jaunarena izango da. Herri Arteko Txapelketakoa az gain, asteburu honetan bi partida jokatuko ditu Espainiako Federakuntzen Torneoaren baitan. 22 urte azpikoen mailako lehen partida gaur edukiko du Gasteizen. Bigarrena Lizarran izango da, etzi 10:00etatik aurrera.

Plazako Txapelketa

Eskuz Binakako Txapelketa herrikoien hirugarren jardunaldia bihar jokatuko dute herriko plazan dagoen frontoan. B taldeko partidak 16:00etan hasiko dira eta guztira 6 lehia jokatuko dira.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

hilberriak
urteurrenak
eskertzak



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Maider Garaikoetxea.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoetaldia: 687 410 022. anoetaldia@tolosaldeko hitza.info.
Ibarraldea: 687 410 032. ibarraldea@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leizaldea: 687 410 118. leizaldea@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:



eta Tolosaldeko eta Leitzaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Areso, Balarriain, Belauntza, Berastegi, Elduain, Gaztelu, Hernalde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Musika

- **Tolosa.** Bonberenean, 22:30ean, Rosalia Roio eta Saioa bakarlarria.
- **Tolosa.** Wim Mertensen kontzertua 20:30ean Leidor antzokian (Mundua Tolosan).

Deialdiak

- **Bedaio.** 19:00etan Bedaio ki-gidaren aurkezpena.
- **Belauntza.** 19:00etan mendiarri buruzko *Himalaiara familiarekin* ikus-entzunekoa eta solasaldia Josu Bereziartuarekin Kultur Etxean, Kultur Astearren barruan.
- **Leaburu.** Ekainaren 6an ospatuko duten II. Zaldi Egunerako bazkarirako tiketak 25 eurorengatik eros daitezke ekainaren 4a bitarte Leaburuko Ostatuan, Trako Astigarragan, Leitza Adur tabernan eta Irurtzuneko Albaitacen.
- **Tolosa.** Gazte Topagunearen www.zazpitantriangulon.com webgunea promozionatzeko bideo grabaketa egingo dute Triangulon 18:00etan.
- **Villabona.** Omako Oke-ren *Que-rida Bamako* dokumentala eskainiko dute udaletxean 19:30ean, kultura arabiarrari buruzko jardunaldien baitan, Jatorkin elkarteak antolatuta.
- **Zizurkil.** Teodoro Hernandorena ipuin lehiaketako liburuaren aurkezpena eta Bihar txotxongilo taldeak *Ipuin magikoak* obra eskainiko du.

A Agurrak

Kultur asteak

- **Leitza.** 20:00etan Torrean Zirika Zirkus taldeko Pantxika Lamurren antzerki emanaldia: *Nik egin behar-ko&ko*, eta 24:00etan Torrean Heavy kontzertua: Kantaflor taldea zuzenean.

Hitzaldiak

- **Tolosa.** Luis Pancorbo Amazoniaz ariko da Kultur Etxean 20:00etan, Amalur jardunaldien barruan.

Antzerkia

- **Villabona.** Txalo Produktzioek *Ahuntza... Nor da Silvia?* antzezlan eskainiko dute Gure aretoan 22:00etan.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

- **Tolosa.** Olarreaga, J. Korreo kalea, 2. 943 670128.
- **Leitza.** Plaza, M.T. Elbarren, 36. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esaneri eta iritzien erantzunkizunik.

Aurtengo uztak ere salbu

Bedaio » Kultur Asteburuari harri jaiarekin eman diote hasiera; 60 lagunetik gora elkartu ziren Artubin, bazkaltzeko.

ERREDAKZIOA

Usadioak agintzen duenez, Isidoro deuna prozesioan atera beharra dago txingor eta harriez uztak babes ditzan, Jasokunde Egunetik hurrengo ostegunean. Bada, bedaiotarren lur eta baratzak babes-tuta daude, beste urtebetez behintzat, atzo ospatu baitzuten bertan Harri jai eguna. Urteko hirtzorduari ondo erantzun zioten bedaiotarrak eta eguzkia lekuko zela jai giroa nagusitu zen.

Hirurogei lagunetik gora bildu ziren atzo eguerdian Artubi elkarte-
tean, bazkaltzeko. Bapo jan eta

gero, bazkalostea alaitzen izan ziren Zeberio eta Mañukorta bertsolari beteranoak. Bestetik, trikitilariak, mahai inguruan zeudenak altxarazi eta dantzan jarri zituzten.

Nondik dator usadioa?

Belaunaldiz belaunaldi kontatzen dutenez, urte batean, garai hautan, kalte izugarriak eragin zituen kazkabarra bota zuen. Bertako baserritarrek uztak galdu zituzten eta etxeetan nahiz baserrietan hondamendi izugarriak izan ziren. Gertaera hau aurre egiteko eta hauek beste behingerta ez zitezen, herritarrek egun hau aukeratzuten zuten erreguteak egiteko, Harri Jai Eguna, hain zuzen ere.

Bedaio, etengabe lanean

Bedaioarrek ez dute atsedetik hartzen eta hilabetero antolatzen dituzte ekitaldiak, Artubi elkarte-



60 lagun inguru bildu ziren Artubi elkarte-
tean bazkaltzeko. ESTI ESTEZA

ren eta bizilagunen eskutik. Hala, atzoko Harri jaiari jarraipena emateko, Kultur Asteburuak antolatuta dute gaur, bihar eta etzira.

Gaur bertan, 19:00etan, Bedaio-ko turismo gidaren aurkezpena egingo dute. Bihar arratsaldean,

berri, ludoteka inauguratuko dute eta, besteak beste, Txolarre irratia zuzenean ariko da Bedaio-
tik, pertsonaia ezagunez lagunduta.

Etzi, Lizartza alderako ibilaldia egingo dute.



Zorionak!

Prepatu al zea despedidako? Lizartza eta Tolosako lagunak.



Zorionak!

Ion eta Amaia. Zuen ezkontza bezperan. Pausu hau emateko adin honetararte itxaro beharra ere...



Urte askoan!

Manex (Ibarra). Urtebete. Zorionak Belauntzatik, gure loti txikia.

berriaren harpidedun eta irakurleek erdi prezioan: **12€**

Bete ezazu maiatzaren 20tik 31 bitartean BERRIAN argitaratuko den **erreserba kupua** eta utzi zure kioskoan **maiatzaren 31** baino lehen. Bi asteren buruan kiosko berean jasoko duzu liburua.

Laguntza FAGOR aukera ezazu, bizi euskaraz **berria**